

Gernikako bombardaketaren 79. urteurrena

«Sirian ez dago bombardaketen abisua ematen duen sirenarik»

YAHIA KODDO ETRA RUBA HASSAN SIRIARREK

Lobak ekimenak gonbidatuta egon ziren atzo, Gernika-Lumon, bombardaketaren 79. urteurrenean; Astrako babesleku barruan egon ziren, hango sirena pizten.

- OIHANA CABELLO

1937ko apirilaren 26an arriskua-
ren abisua eman zuen sirena piz-
teko ardura hartu dute aurten
Yahia Koddo etra Ruba Hassan
siriarrek. Ikasteko iragan-agiria-
gaz heldu ziren Euskal Herrira,
eta etxera bueltatzeko eguna
gero eta urrunago ikusten dute.
Atzo Gernika-Lumon egon zi-
ren, eta Lobek antolatutako *Ger-
nika 04 minutu* ekimenean sire-
na pizteko aukera izan zuten.
**Zelan bizi izan duzue sirena piz-
tearen momentua?**

Gurezat esperientzia oso bere-
zia izan da. Batez ere, siriarren-
gan izan dugu pentsamendua.

eskerrak eman gura dizkiegu,
gaur egun sufritzen ari diren
guztien ordezkari izan ahal iza-
tea eskertu nahi dugu.

**Urteurrenean, gainera, garran-
tzia hartu dute errefuxiatuek**

Bai, eta oso garrantzitsua da
hori. Jendeak gogoratu egingo
du Gernika ere bonbardatu egin
zutela, Sirian gertatzen ari dena
hemen ere gertatu zela, eta,
munduko edozein lekutan gerta
daitekeela. Horregatik da ga-
rrantzitsua errefuxiatuek bizi
duten egoera gogoan izatea.
Hartara, jendeak gogoratuko du
36ko gerratik ihesi zihozaren
errefuxiatuak ere izan zirela,
mugak zeharkatu behar izan zi-
tuztela, eta familia askoren sufri-
mendua ekarri zuela. Gizakiaren
sufrimendua berbera da, hemen
eta munduko beste edozein le-
kutan.

**Ikasteko baimenagaz atera zi-
nerean Siriatik, baina, buelta-
tzea zail izango zenutela pen-
tsatu al zenuten?**

Exetrik atera ginenean pentsatu
genuen egun batzuetarako izan-
go zela. Orain, gero eta urrunago



bila dezan. Bestalde, gernikarrek bonbardaketa bizi izan zuten momentua ere izan dugu gogoran, zein zaila izan behar duen gaur egun oraindik une hori berriro gogoratzea. Sirian edo hermen, bonbardaketen uneak pre-

gernikarrei, euskal herritarrei? Eskerrak eman gura dizkiegu; batez ere, errefuxiatuak hartzen eta babesten dituzten euskal herritarrei. Gobernuak gehiago egin dezakeela uste dugu, eta egingo duela espero dugu. Baina jendartearen erantzuna esker-tzekoa da.

konpartitza. Gainera, bertoko jendeak siriarrak erakusten diuen elkartzuna ere sumatu dugu. Egia esateko, gaur hemen egotera gonbidatu gaituztenei

urteurrenean parte hartzeko aukerazatea? Gurezat oso garrantzitsua da gaur [atzo] hemen egotea, eta momentu hau gernikarrek

sente ditugu oraindik. Azken finean, gizakia delako sufrizten duena, han eta hemen. **Zer suposatzen du zuentzat Gernikako bonbardaketaren**

Iraganari helduz, etorkizun berria gura dute Lobek

-O.C.

Iragana ahaztu gabe begiratzen diote Gernika-Lumoko Lobek etorkizunari. Aurten, bonbardaketaren 79. urteurrenean, Zallo hilerrian egiten duten ekimenen ere izan dira. Gernikako bonbardaketen hil zirenen omenezko ekitaldi eta lore eskaintzan, beraien hausnarketa plazaratu dute Lobek ere.

Iraganari helduz, etorkizun berri bat koloretatu gura dute, lagundu ahal dioten pertsona bakoitzari eskua eskainiz. Loben izenean Maitane Uriartek hartu zuen hitza. «Argi dugu gosea, horetza, beldurra, deportatuak, erbesterratuak, errepresioa... gerraren zati direla, eta, akatsetatik ikasiz, ez dugula Guernica gehiagorik nahi», esan zuen.

Lobentzat egunero da apirilaren 26a, «egunero izango dugu lako gogoratzeko betebeharra».

Ez dira isilduko, ingurua eraldatzeko beharra sentitzen baitute. «Garaiak aldatu direla diote, egunkari berriak, kale berriak, ideia berriak... berrikuntzen lorak omen gara. Baina odola kolore berdinez isurtzen jarraitzen du, bonben botere hotsak bere horretan dirau».

Lobek argi dute leku bateko zein besteko bonbek pisu bera dutela. «Apirilaren 26 hartan Gernikan eroritako bombak dira gaur Palmyran erortzen ari direnak, Brusela nahitu dutenak, Afganistango lurra suntsitu dutenak. Azken finean, gaur egun oraindik ehunka Guernica daude», diote.

Aldaketa bideratu


Bonbetatik ihesi, orain 79 urte, beraien arbasoek ere, bizimodu hobearen bila beste lur batzuetara joan behar izan zutela izan

dute gogoan Gernikako bonbardaketaren urteurrenean. «Gaur egun, tamalez, Calais, Idomeni eta beste hamaikatzko kartzelatan gotortuta dituzte gerrako biktimak», gogorarazi zuen Uriartek. Garai berriak diren arren, Lobek diote mundua ez dela horrenbeste aldatu.

Eta gaur egungo egoerari bere ekarpena ere egin nahi dio Gernika-Lumoko Lobek ekimenak: «Gure asmoa bakearen sinbolodun gure herri honetatik hasi eta aldaketa bideratzea da, edozein gerraren aurka egon behar dugulako, harresiak apur daitez».

Hala, barikurako manifestazioa deitu dute, *Guernicatik gertik*. Ongi etorri lelopean.

Errefuxiatuak Gernikan ongi etorriak direla aldarrikatu dute kalean. Manifestazioa Andra Mariko babeslekurik abiatu-



Lobak ekimenekoak, atzo, Zallo hilerrian. ANDER ZARRAGA

emango ditu Sabadelletik (Katalunia) helduko den Genis Ribe historialariak. Astran izango da berbaldia, 12:00etan.